

## INFORMAZIO OHARRA

### **Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuak jendartearen eta lurraldearen kohesioaren aldeko Herri itun baterako proposamenak egingo ditu**

- *Urriaren 2tik 4ra izango da Gasteizen, “Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit” lelopean*
- *Gaian interesa izan dezaketen adituak, irakasleak, ikasleak, ikertzaileak, erakundeen eta enpresen ordezkariak eta, orokorrean, euskal gizarte zibil osoa deituta daude parte hartzera kongresuan*

**Gasteiz, 2024ko urtarrilak 26.** Eusko Ikaskuntzak antolatutako Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua aurkeztu da gaur goizean publikoki Gasteizko Europa Biltzar Jauregian eta, arratsaldean, toki berean, eragile sozial, politiko eta ekonomikoen baita Eusko Ikaskuntzako bazkiden aurrean. Kongresua, *Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit* lelopean, urriaren 2tik 4ra egingo da Europa Biltzar Jauregian bertan.

Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak gogorarazi du Eusko Ikaskuntzaren sorrera 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundien ekimenez egindako Eusko Ikaskuntzaren lehen Kongresuan izan zela.

1936ra arte, Eusko Ikaskuntzak sei kongresu antolatu zituen, bi Ipar Euskal Herrian diktadura frankistan, eta hamar 1978an erakundea berrezarri zenetik. Edizio guztietan, helburu hauek izan dituzte: batetik, ikerketa eta kultura sustatzea, eta, bestetik, Euskal Herriaren erronken eta beharren inguruko prospekzioa egitea, aurrerabidea xede.

Gasteizek Eusko Ikaskuntzaren Kongresu bat hartuko duen bosgarren aldia izango da, 1926, 1993, 2009 eta 2018an egindakoen ondoren.

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuko lehendakariak, soziologian doktore eta EHUko irakasle titular Patxi Juaristik, edukien eta helburuen berri eman du. Azaldu duenez, Kongresuak Euskal Herriaren jendartearen eta lurraldearen kohesioaren alde abian jarri behar diren politiken eta/edo erabakien inguruan Herri Itun bat lortzeko proposamenak egin nahi ditu. Adostasun zabalak lortu eta norabide

horretan planteamendu zehatzak egitea, horretarako gaitasun kolektiboak aktibatuz, dira bere helburu nagusiak.

20218an Eusko Ikaskuntzaren aurreko Kongresuan ateratako ondorioetatik abiatuta, Eusko Ikaskuntzak hainbat ikerketa- eta hausnarketa-ildo ezarri zituen une historiko honek planteatzen dituen aldaketei eta erronkei aurre egiteko. Prozesu horretan metatutako ezagutzatik abiatuta, XIX. Kongresuak hiru ardatz tematiko nagusiren inguruan aurrera egin nahi du:

**Eredu sozio-ekonomiko berria eta ongizatearen gizartea.** Eredu sozioekonomikoa birdefinitzeko eta ingurumen-jasangarrian oinarritutako ekonomia berri baterantz igarotzeko beharraren aurrean, ekoizpen- eta banaketa-paradigmak, aurrerapenaren ideia, lan-merkatuaren erronkak, digitalizazioaren ondorioak edo produktibitatearen hobekuntza birpentsatzea proposatzen da, besteak beste.

**Jendartea.** Gizarte-kohesio handiagoa bilatzeak Euskal Herrian bizi diren pertsonen errealitateari buruz hausnartzera behartzen du: aniztasunari, kulturartekotasunari edota bizikidetzari buruz; eskubideei eta betebeharrei, konpromisoari eta elkarrekotasunari buruz. Funtsezko zeregina dute hezkuntza-sistemak eta kulturak kudeaketaren eta parte-hartzearen ikuspegitik. Elkarteen eta ikaskuntza-komunitate txikien lana ere ezagutaraziko da.

**Lurraldea.** Euskal Herria osatzen duten lurraldeen arteko harremanei helduko zaie, eta elkarrizketa izango da kohesioa lortzen lagunduko duten gutxieneko adostasunak lotzeko ezinbesteko baldintza. Hiri- eta landa-munduaren arteko loturetan sakonduko da. Eta, estatuen barruko subiranotasuneko lurralde-gatazken esparruan, Kongresuak oinarri-proposamen bat sustatuko du gatazka horiek konpontzeko.

Hala, lortu beharreko "Herri itun" desiragarriaren bila, hiru arloetako kezak bilduko dituzten eta euskal lurralde guztiek partekatzen dituzten beharrei erantzungo dieten proposamenak landuko dira.

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua adituei, irakasleei, ikasleei eta ikertzaileei, erakundeetako eta enpresetako ordezkariari eta euskal gizarte zibileko erakunde eta elkarteei irekita dago. Izen-emateak [www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua) web orriaren bidez egin daitezke dagoeneko.

## NOTA INFORMATIVA

### **El XIX Congreso de Estudios Vascos elaborará propuestas para un Contrato social en favor de la cohesión social y territorial**

- *Tendrá lugar del 2 al 4 de octubre en Vitoria-Gasteiz bajo el lema “Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit”*
- *El foro está abierto a especialistas, docentes, estudiantes e investigadores e investigadoras, a representantes de instituciones y empresas así como al conjunto de la sociedad civil vasca*

**Vitoria-Gasteiz, 26 de enero de 2024.** Hoy, 26 de enero, en el Palacio de Congresos Europa de Vitoria-Gasteiz se ha presentado en rueda de prensa por la mañana y ante agentes sociales, políticos y económicos, así como socios y socias de la entidad, por la tarde, el XIX Congreso de Estudios Vascos que, organizado por Eusko Ikaskuntza, se desarrollará del 2 al 4 de octubre en ese mismo escenario bajo el lema *Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit*.

La Presidenta de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Ana Urkiza, ha recordado que la institución tuvo su origen en el primer Congreso de Estudios Vascos, celebrado en 1918 a iniciativa de las Diputaciones de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra. Hasta 1936, Eusko Ikaskuntza organizó seis Congresos, dos en Iparralde durante la dictadura franquista, y diez desde la restauración de la entidad en 1978. En todas las ediciones sus objetivos han sido, por una parte, la promoción de la investigación y de la cultura, y, por otra, el análisis de las necesidades sociales ante los desafíos planteados en cada momento para el progreso de las comunidades vascas.

Será la quinta ocasión en que Vitoria-Gasteiz acoja un Congreso de Estudios Vascos tras los celebrados en 1926, 1993, 2009 y 2018.

El Presidente del XIX Congreso de Estudios Vascos, el doctor en Sociología y profesor titular de la UPV/EHU Patxi Juaristi, ha informado de sus contenidos y objetivos. Según ha explicado, el Congreso pretende crear las condiciones para alcanzar un Contrato Social en torno a las políticas y/o a las decisiones que se han de poner en marcha en favor de la cohesión social y territorial de Euskal Herria. Trenzar amplios consensos y elaborar propuestas concretas en esa dirección, activando para ello las capacidades colectivas, son sus principales objetivos.

A partir de las conclusiones obtenidas en el anterior Congreso de Estudios Vascos, en 2018, Eusko Ikaskuntza implementó varias líneas de investigación y reflexión para afrontar los cambios y retos que plantea este momento histórico. A partir del conocimiento acumulado en ese proceso, el XIX Congreso quiere avanzar en torno a tres grandes ejes temáticos:

**Nuevo modelo socio-económico y sociedad del bienestar.** Ante la necesidad de redefinir el modelo socioeconómico y de transitar hacia una nueva economía basada en la sostenibilidad ambiental, se propone repensar los paradigmas de producción y distribución, la idea de progreso, los retos del mercado laboral, los efectos de la digitalización o la mejora de la productividad, entre otros aspectos.

**Sociedad.** La búsqueda de una mayor cohesión social obliga a reflexionar sobre la realidad de las personas que viven en Euskal Herria: sobre diversidad, interculturalidad y/o convivencia; sobre derechos y deberes, compromiso y reciprocidad. Papel fundamental juegan el sistema educativo y la cultura desde la perspectiva de la gestión y la participación. También se dará a conocer la labor de asociaciones y de pequeñas comunidades de aprendizaje.

**Territorio.** Se abordarán las relaciones entre los territorios que conforman Euskal Herria, con el diálogo como condición necesaria para la articulación de unos mínimos consensos que contribuyan a su cohesión. Se profundizará en los vínculos entre el mundo urbano y el rural. Y, en el marco de los conflictos territoriales de soberanía dentro de los Estados, el Congreso promoverá una propuesta de bases para su resolución.

Con todo, en busca del deseable “Contrato Social”, se elaborarán propuestas que recojan las inquietudes en las tres áreas y que respondan a las necesidades compartidas por el conjunto de los territorios vascos.

El XIX Congreso de Estudios Vascos es un foro abierto a especialistas, docentes, estudiantes e investigadores e investigadoras, a representantes de instituciones y de empresas, pero también a organizaciones y asociaciones pertenecientes a la sociedad civil vasca. Las inscripciones pueden cursarse a través de la página web [www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua).